

Paleolitoko zaldi baten eta ahuntz baten irudiak topatu dituzte Zestoako Astuigaña haitzuloan

Ekain eta Altxerriko labarretako arte-multzoko klasiakoari gero eta aurkikuntza gehiago gehitzen ari zaizkie. Horren lekuko, Antxieta Jakintza Taldeak Zestoako

Astuigaña haitzuloko pasabide estu batean aurkitutako zaldia eta ahuntza.

EHUko Historiaurrearen Ikerketarako Taldeak aztertu ditu marrazkiak,

eta duela 13.000-12.000 urtekoak direla adierazi dute. Alegia, Madeleine aldikoak, Goi Paleolitoko hirugarren eta azken kulturakoak.

Madeleine aldia arte-sorkuntzan oso emankorra izan zen. Garai hartakoak dira Ekain, Altxerri eta Aitzbitarte V-eko irudiak ere. Izan ere, Euskal Herria pasabide naturala eratzen duen lurraldea izan zen Goi Paleolitoan bizi izan ziren taldeentzako (orain dela 43.000 eta 12.000 urteen artean), eta populazio-dentsitate handia ekarri zuen. Hori guztia, Paleolitoko la-

barretako artea duen haitzulo multzo handian islatuta da. Aurkikuntza honekin, 11 dira jada paleolitoko artea gordetzen duten haitzuloak Gipuzkoan. Hala, egun Euskal Herria sinbolismo eta arte jardueraren hasieraren ebidentzia gehien biltzen duten lurraldeetako bat dela esan dezakegu.

Oraingoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak haitzuloa itxi egin du eta Eusko Jaurlaritzak babes gorena eman beharko dio, labarretako artearen adierazle izateagatik. ●



ARG.: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Munduko populazio osoa elika liteke etorkizunean baso gehiago deforestatu gabe

Egungo basoak babestea lehenetsun hartuta, etengabe hazten jarraitzen duen giza populazioa elikatzeko nahikoa nekazaritza-lur ba ote dagoen aztertu nahi izan dute Austriako Gizarte Ekologia Institutuko ikertzaileek. Emaitza argia da: posible da giza populazio osoa elikatzea baso gehiago nekazaritza-lur bihurtu gabe, baina gure dieta-motak baldintzatuko luke. Haragia jateak eskatzen du deforestazio gehien.

2050. urtean eman daitezkeen egoera errealek aztertu dituzte ikertzaileek, kontuan hartuta zer erabilera ematen zaien nekazal lurrei, zenbateko etekina ateratzen zaien lurroi, ganadua nola elikatzen den eta

gizakiok zer elikadura-ohitura ditugun, besteak beste. Ikusita zenbat biomasa sortzen dugun eta zenbat kontsumitzen dugun, 500 egoera posible desberdin aztertu eta modelizatu dituzte. Emaitzek erakusten dute egoera horietako askok munduko giza populazioaren elikagai-eskaera aseko luketela baso-lur gehiago soildu gabe.

Munduko giza populazio osoa guztiz beganoa balitz, aztertutako egoeren % 100 izango lirateke posible; egoeren % 94 lirateke posible denok begetariano bagina; % 66, dietak orain arte bezala jarraituko balu; eta soilik % 15, mundu-mailan men-debaldeko aberatsen estiloko dieta orokortuko balitz, alegia haragian oinarritutakoa. ●



ARG.: CHRIS WAITS, FLICKR